

19. KONTU HARRIGARRIAK

Ezagutzen dut gizon bat
Onako kantoian bizi da, (bis)
kontu harrigarriak
kontzatzan ditu
jakin-minaren truke (bis)

Oñatiko kondearen
ezinezko maitasuna,
Aloña magaleko otsoaren azken eguna,
ehiztari batek akabatuta.
Herriko lehenengo dibortzioa,
apaizaren maldizioa.

Ezagutzen dut...

Arantzazuko fraileak
galdutako sandalia,
Banaztaginen arteko haserraldia
txokolate ontza batengatik,
Lope de Aguirren purrustadak,
Txantxi kuaren matxinadak.

Ezagutzen dut...

Hitzak: Idoia Etxeberria
Doinua: Josemari Anduaga



KANTAPAPERAK

ETXE AUNDI, 2018ko ekainaren 9a

1. ARAOTZ ETA URRUSULA

Araotz eta Urrusulan
ibili gaittuk ondo
baiña beti dispuesto
San Pedrora fateko.

Ali ali, ali baba
urte bi baiño lehen
ezkonduko gaittun;
pero el ingles dijo: frufnú
harrapatu, a mi no me jodes tú

Hitzak: (etxandiko Ixaak)
Doinua: Herrikoia

2. TXORIAK TXORI

Hegoak ebaki banizkion, nerea izango zen,
ez zuen alde egingo.

Bainan, honela, ez zen gehiago txoria izango
eta nik....Txoria nuen maite.

Hitzak: J.A. Arze
Doinua: M. Laboa

18. LIZARGARATEKO TXAMAO

I
Hor agertu dan honi
zutik eta tente
ezizenez Txamao
esaten xaue.
Bere bizilekua
da Lizargarate,
egin dittuan gauzak
famaz bete daue.
Harro ta tunante,
batzutan galante,
jan-edan dexente,
beti ase arte;
kaletarreki dogu (e)
orain tratante.

II
Tratua egin daue,
a zelakotxia!
estudiante horreik
ikaraketia.
Kontuz ibilli deilla
ikasle-jentia,
ezpaldin badau gura
jipoia hartzeia.
Txamao da trastia,
badako artia
eta malizia,
idaurra luzia,
kantoian ipiñi dau (e)
kizki-alanbria.

Hitzak: Jerardo Elortza
Bertso Doinua

17. BERDE TA ZABAL

1-Berde ta zabal galantki,
orein ta arrano, Oñati,
arkitektura askotarikoz
jaukal eta jaiki;
historia latzez gaindi,
hain du gustoak eraiki,
begira eta goza dezagun
egina dirudi.

2- Kale bikain ta baserri
ugari eta ireki,
paraje berdin-gabea
jantziz
zein dagon ederki;
jende prestuaren herri,
monumentu ta armarri,
berriztapenei bizkor
emana
bizi da Oñati.

3- Lana lan eta jaia jai
asteko nekeen gozakai,
Oñati pozik kaleratzen da
apain eta alai;
Gorpuzti bai du nolana
aspalditiko festagai,
herriak hura ospatzen ohi
du inondiko ernai.

4-Haur eta heldu batera
herrira zaizu atera
dena kolore, dena irudi,
kaleak aurrera.
Begirune ta jaiera,
Kustodiari harrera,
etxarte arraiz pilpil
Oñati
gutziz alegera.

5-Kofrade ta agintari,
txistulari ta dantzari,
plaza ta kalez prozesioa,
San Migel gidari.
Fede, folklore, opari,
pozaldiaren emari?
Bejon deiola Oñatiri ta
Gorpuzti jaiari.

6-Edertasunez haundia,
Oñatik badu grazia,
harri ta jende jator ta
landuz oparo hazia;
bitxia ta irazia,
berebiziko había,
zein yayoa den Korputzei
lotzen dion fantasia.

Hitzak: Bittoriano Gandiaga
Bertso doinua

3. AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

Aitorren hizkuntz zaharra, nahi degu zabaldu.
Munduaren aurrean, gizonki azaldu.
Baldin gure zainetan, odolik badegu,
euskaldunak euskaraz, hitzegin behar degu.

Lehenbiziko hitza, haurtxo nintzanean,
amaren besoetan, bular-barrenean.
Hitz hauek erran zidan, hizketa garbian,
"Gora euskara semetxo", bihotz barrenean.

Amatxok erran zidan, heriotz-aurrean
"Agur semetxo laztan, laster naiz lurpean
euskaraz otoitz egin, neure lur-gainean
euskara entzun nahi dut nik, bai zorionean".

Gora euskara maitea, zoragarriena,
euskaldunen artean, maitagarriena.
Munduan sortu denik, hizkuntza zaharrena
gora ta gora euskalduna, ta gure euskera.

Hitzak eta Doinua: Herrikoia

4. EGUN DA SANTIMAMINA

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina
Goiko Zeruan gorde dezala
luzaro neure arima

Errekaldian lizarra,
hari begira izarra;
euskera salbo ikusi arte
ez dot moztuko bizarra.
Egun da

Gau ta egun nago itxarrik,
inun ete dan izarrik;
Euskal Herria askatu arte
ez dot moztuko bizarrik.
Egun da....

Lizarrak dagoz tristerik,
izarrak lainoz beterik;
gaur ez daukagu bizarra
mozten
dedikatzeko astirik.
Egun da...

Lizarrak dabez inausi,
izarrak joan igesi;
bizarra mozten duanak ez
dau
askatasunik merezi.
Egun da....

Txoriak iges nahi, baina,
kaiolan kanta samina;
gaur ez gintzake preso
egongo
danok bizardun bagina.
Egun da....

Hitzak: G. Aresti,
J.M. Arrizabalaga
Doinua: Mikel Laboa

5. SAN SIMON ETA SAN JUDA

San Simon eta San Juda
joan zen uda
eta negua heldu da: (bis)
Ez baletor hobe,
bizi gera pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik,
ez gara zaldunak
ez dugu abererik,
ez gara aberatsak.
Euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak
euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak.

Hitzak: Herrikoia
Doinua: X. Lete

16. GALDETU JERARDORI

Zein da Oñatin gehixen dakixena?
Esan dostai Jerardo dakola izena
Galdetu egixotzu, badaki gehixena
berak dako memorixa haundixena

Galdetu Jerardori
baten batek badaki,
Jerardok daki (bis)

Oñatiko historia, berba kontuak eta antzerkixa
Gauza serixuak eta huskerixak. Dana daki ixixa.

Galdetu Jerardori ... (bis)

Genealogia, arkeologia, literatura eta filologia
suertia da gurekin, hemen eukittia,
hanka biko entziklopedia

Galdetu Jerardori ... (bis)

Euskal Herriko eta mundu osoko erreka,
mendi eta herrixak
alemana, latiña, batua, euskalkixak, dana daki ixixa

Galdetu Jerardori ... (bis)

Hitzak: Idoia Etxeberria
Doinua: Josemari Anduaga

15. AGURE ZAHARRA / L'ESTACA

Agure zahar batek zion
bere etxe ondoan,
goizean goiz lantegira
irtetzen nintzanean:
-Ez al dek gazte,
ikusten
gure esola zein dan,
desegitzen ez badugu
bertan galduko gera.

Baina guztiok batera
saiatu hura botatzera
usteltzen hasia dago-ta
laister eroriko da.
Hik bultza gogor
hortikan
ta bultza nik
hemendikan
ikusiko dek nola nola
laister eroriko dan.

Bainan denbora badoa
nekea zaigu hasi.
Eskuak zahartu zaizkit
eta indarrak utzi.
Usteltzen ez badago
ere
karga badut oraindik,
berriz arnasa hartzeko
esaigun elkarrekin.

Baina guztiok batera....

Agure zaharra falta da
bere etxe ondotik,
haize txar batek
hartuta
eraman du hemendik.
Haur batzuk ikusten
ditut
eta inguraturik
agure zaharraren kanta
nahi diet erakutsi.

Baina guztiok batera

Hitzak eta Doinua: Lluís Llach
Itzulpena: Xabier Lete

6. HABANERA

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
bainilla gozo artean.
Itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe
hartan.
Neskatxan puntilla fiñak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen
dute
ezpain buztien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez.
Gaua zelatan dakusat
kontzientzia bilusik
badoaz ordu geldiak
gogorapenen hegalez.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun
dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
girotutako arratsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan.
Abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
Kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
Norbaitek erantzun
dezan.

Hitzak eta Doinua: X. Lete

7. KONTRAPAS

Garaziko herria
benedika dadila,
euskerari eman dio
behar duien tornua.
Euskara,(bis)
jalgi hadi plazara!

Bertze jendek uste
zuten
ezin eskriba zateien,
orai dute phorogatu
enganatu zirela.
Euskara,(bis)
jalgi hadi mundura!
Lengoajetan ohi hintzan
estimatze gutitan,
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.
Euskara,(bis)
habil mundu guzira!

Bertzeak oro izan dira
bere goien gradora,
orau hura iganen da
bertze ororen gainera.
Euskara!

Baskoak orok
preziatzen,
Euskara ez jakin arren,
orok ikasiren dute
orai zer den Euskara,
Euskara!

Oraidano egon bahiz
inprimitu gaberik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik,
Euskara!

Ezein ere lengoajerik
ez frantseza ez
bertzerik,
orai ezta erideiten
Euskararen parerik,
Euskara,
jalgi hadi dantzara!

Hitzak: B. Etxepare/G.
Aresti
Doinua: X. Lete

14. GORA TA GORA BETI

Gora ta gora beti
haik gora Lapurdi!
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo
kapitala
eta Lapurdi dago beti
apala,
aldbesturik dago
mundu zitala,
konformatzen ez
bagara
ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizimodu
normala
lurra lantzeko
aitzurra eta pala,
lanaren truke
kobratzen erreala.
Benetan da miserable
euskaldunon jornala.

Munduan ezin bizi
daiteke hala,
merkatuetan dena
gora doala,
etxera eta zopa
guztiz argala,
kriseiluen olio
ez da postre formala.

Obrero eta nekazari
leiala,
zuena ez da errenta
liberala.
Diru zikinak putre
motzak bezela
botatzen diren gainera
hortxe bere itzala.

Jabeek dute
kontzientzi zabala,
kakaztu dute gure
lurren azala,
baina Lapurdi ez da
hain zerbitzala;
burruka garbian dago.
Hori da printzipala.

Hitzak: G. Aresti
Doinua: Herrikoia/Oskorri

13. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia nozbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia nozbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal herrian euskara
hitzegiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri azkara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nora irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal herri euskalduna
irabazteko eguna,
pazientzia erre aurretik
behar deguna;
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

Hitzak: X. Amuriza
Doinua: N. de Felipe

8. MENDIAN GORA

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean
dabiltza
itsasoaren arimak
dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi det
bizitza
usteltzen ez bazait
hitza
mundua dantzan
jarriko nuke
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko
tristura
soineko beltzen
joskura
txori negartiz bete da
eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina
edanda
bizi naiz gustora.

Euskal Herriko poeta
kanposantuko
tronpeta
hil kanpaiari tiraka
eta
hutsari kolpeka.
Argitu ezak kopeta
penak heuret zat
gordeta
goizero sortuz bizitza
ere
hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
bainan ba dira mila
motibo
kantatzeko alai
bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen
gauean behintzat
egizue lo lasai.

Hitzak: X. Amuriza
Doinua: Imanol

9. LANGILE BATEN SEME

Langile baten semea naiz ni,
aita bezela langile,
eguneroko ahaleginetan
soldata baten egile;
esku hutsik jaio eta
esku hutsikan nabile,
puntaoetan inor etzaigu
gertatu ongile.

Aita ta Amak nahiko ninduten
fabrika batian,
bizitzarekin burrukatzeko
altzairu artian;
bidetxiurretik noa,
agian nere kaltian,
baina ez det uste nabilenikan
horren apartian.

Izerdi asko ez det ixurtzen
larreko pendizan,
paper tartean murgildutako
zomorroa izan,
limosnatik bizi diren
umezurtz batzuen gisan,
periodikuak ez dira gutaz
mintzatzen Parisan.

Banastagiñ onenak Santamañakuak
Kale garbitzailliak Kalebarrikuak

Neskarik ederrenak lekunberrikuak
Txokolate jantzaille kalezarrekuak

Ipurtaundixak dira Goribar-auzokuak
Berbarik leunenak Zañartu aldekuak

Bidietako txixaiñak Garibaikuak
Fraka zuridunak Zantxolopiztikuak

Kale merienda egille Zubillagakuak
Errondari fama Aurreko mendikuak

Orra ogetasei bertso guztiak egiak
Onrak merezi dizkik Oñatiko erriak.

Hitzak eta Doinua: Herrikoia

12, OÑATIKO KALE TA BASERRI-AUZOAK

Goizean kantatzen du txori argitsuak
erantzuten diola birigarrotxuak

Zikirixo mosuak Garagaltza-auzokuak
Baba zorruak dira Urruzulakuak

Kontrabandista fama Aroetzekuak
Esamiñadoriak Goiko mendikuak

Bixen bittartekuak Uribarrikuak
Bustin zakatzailliak Lezesarrikuak

Laixari famatuak Beresaokuak
Morena graziosa Murgi-betekuak

Neskailla panposak Olabartakuak
Bustanikarak dira Larraña-auzokuak

Serbilleta mosuak Torre-auzokuak
Perretxikuzale Mendiko-kalekuak

Horretan badet bizi geraden
herriaren antza,
ezintasuna gailendu eta
bakardade latza;
hezurreraino sartua
galtzailearen arantza,
eromen kolpez berpiztu nahirik
gure esperantza.

Gitarra txar bat hartu nuen ta
hemen nabil deman
euskaldun zaharrok aspalditikan
beti dugun teman;
ardo mindua edanaz
historiaren tabernan,
nahiz desapiyo galanki jaso
bueltan ezin eman.

Hamaika orru ta bertso arrunt
nauzute botia,
ez da erreza trebe txehetzen
euskaldun otia;
norbaitek esango balu
hobe nukela joatia,
neri berdin zait zuek hemen ta
ni hor egotia.

10. ERROTA ZAHAR MAITEA

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren gainean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
aleak xetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Zotin segua dabil
errotaria
itzalitako
izar dirdirak
dira neretzat
zure begiak.

Izar eder bat dago
hor goiko lekuan,
errota zaharra berriz
erreka zokuan.
Bere biziko pena
badaukat barruan,
ezin gintezke bizi
elkarren ondoan.

Bizitzaren legea
nahi det onartu
ala beharra
goraiez hartu
berez doana
zertan behartu.

Hitzak eta Doinua: X. Lete

11. EGUNSENTIA

Eguzkien argia
leihopetik sartzean
poz eta alaitasunez
esnatuko gera;
txorien abestiekin
alaitutako eguna
gizonen gorrotoekin
hondatuko da eguna.

Ibiliko gera
alkarri kalte eginaz
ustez lagunik haundienak
aurrez ondo hitzeginaz.
Batzuen izerdiarekin
besteak diru eginaz
egia esan dutenak
giltzapera eramanaz.

Gauza hoiek ikusteko
nolaz esnatzen gera
gauza hoiek egiteko
nola jaikitzen gera.
Txoriek alaitutako
eguna hondatzeko
hobe genduke ez esnatu
ta bertan gelditu lotan.

Ibiliko gera

Hitzak eta Doinua: B. Lertxundi